



TXAPELA BURUAN IBILI MUNDUAN

2009 - 10 IKASTURTEA

HEZITZAILE LABORALAK

ARABA: Eulogio Serdan , 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nicolás Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbo	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Basotxiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 behea	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org



Txapela buruan ibili munduan

09/10 IKASTURTEA

Hezkuntza Sailak ikasturtean zehar dituen beharren arabera irekitzen ditu ordezkapenatarako zerrendak. Aurten, langileen faltagatik, ohizko ez den bezala, azaroaren 9tik apirilaren 15 arte egon dira zabaldua.

Ordezkapenatarako zerrendak. Hiru herrialdeetako zerrendetan bazaude, ondo baloratu behar dituzu zure interesak, edozein herrialdeetatik deituz gero, ezetza emateak hiru herrialdeetako zerrendetatik desagertzea suposatzen du eta. Hala ere, uko egiteko hainbat arrazoi onartzen dira (bajan egon, lanean egon, ikastaroak edo ikasketak egiten egon...) Arrazoi horietakoren bat alegatuz gero dagozkion frogagiriak aurkeztu behar dituzu. Berriro zerrendetan libre moduan jartzea nahi baduzu, aurretik alegatu zenuen egoeraren bukaera ziurtagiri baten bitartez jakinarazi behar da.

Ordezkapena lortu baduzu, ikastetxeko idazkaritzara joan eta paperak lehenbailehen bete. Bestela kotizazio egun batzuk gal ditzakezu, paperak ikastetxetik lurralde ordezkaritzara iritsi eta konprobatu ondoren, handik Gizarte Segurantzara bidali behar baitituzte eta honek bere denbora darama. Bestetik, zure lanegun kopurua noizbehinka egiaztatzea komeni da; hau, edozein Gizarte Segurantzara bulegotan (bertaratuz zein internetez), zure bititza laborala eskatuz egin dezakezu. Bititza laborala honek garrantzi handia dauka gerora begira, erretiroa eta langabezia-saria honi lotuta baitoaz. Kotizatutako egunak zerbitzu egunak baino gutxiago badira, erreklamazioa aurkeztu lurralde ordezkaritzan eta haren kopia bat (sarrera zigilu eta guztiz) gorde.

Zure ordezkapena bukatzerakoan, lurralde ordezkaritzan abisua eman ahalik eta lasterren. Errakuntzaren bat suertatzen denean, idatziz aurkezturiko dokumentua erantsirik daramaten erreklamazioak soilik onartuko dituzte. Hau dela eta, telefono deia egiteaz gain, ikastetxetik bertatik, ordezkaritzara fax bat bidaltzea gomendatzen dizugu, libre zaudela esanez, eta kopia bat gordetzea.

Ikasturtean zehar sortzen diren ordezkapenak. Irailaren 1etik aurrera behar guztiak telefonoz esleitzen dira, holakoak izan daitezkeelarik:

- Jardun murriztu eta jardun osoko bakanteak, abenduaren 30 baino lehen eskaintzen diren guztiak abuztuaren 31 arte mantenduko dira, urtarrilaren 1etik aurrerakoei ekainaren 30ean emango diote bukaera.
- IRALE: 3 edo 6 hilabeterako
- Jardunaren murrizketak: jardun erdia edo herena betetzeko
- Ordezkapenak: gaixotasunagatik edo lizentzia edota bahimenak betetzeko.

Paroa kobratzeko eskubidea. Txandaka lanik egin gabe egoten bazara edo/eta jardunaldi murriztuko lanpostua betetzen baduzu paroa kobra dezakezu azken 6 urteetan 360 egun lanean bete badituzu. Kontuz datekin zeren 15 egunetako epea daukazu eskaera egiteko

Birbaremazioa. Ordezkoen zerrendak apirilean gaurkotzen dira. Epe horretan guztiok joan behar dugu ordezkari gure zerbitzu-orriaren bila, hau baita une egokia gure datuak zuzenak direla egiaztatzeko edo/eta nahi izanez gero aldaketak egiteko: lurralde batetan izena eman/kendu, jardunaldi mota aukeratu, espezialitateak gehitu/kendu, libre gisa agertu...

Puntu kopurua ondo dagoen ala ez konprobatze aldera, hau jakitea komeni zaizu: sare publikoan egindako zerbitzuek puntu 1 gehitzen dute 30 eguneko, eta pribatuan egindakoek 0,5 puntu 30 eguneko, kategoria berdinean lan eginez gero. Birbaremazio bakoitzean urte horretan apirilaren 16ra arte egindako zerbitzuak hartzen dira kontuan.

Puntuazio berdina egonez gero, **2009/10** ikasturterako berdinketa hausteko letra "H" da.

Lan jardunaldi murriztua. Aukera ona izan daiteke puntuak pilatzeko, zerbitzu aldiak jardunaldi osoan egindakoak bezala balio duelako baina bere ondorioak ere baditu: soldata eta Gizarte Segurantzako kotizazioa kontratuaren arabera izango dira, erdia edo herena. Kontuan hartu langileak legez agindutako zaintza duelako murrizketa eskatu badu, edozein unetan jardun osora itzuli daitekeela, eta ondorioz ordezkapena amaitu egiten dela.

Jardunaldi murriztuko lanpostu batean zaudelarik zure soldata INEMek ordaintzen duen langabeziako prestazioarekin osatzeko aukera daukazu, baldin eta alde zuzenetik eskubide hori sortu baduzu. Sindikatuan informa zaitez edo/eta INEMen neurri hau zelan aplikatuko litzazukeen galdetu.

Eibarreko esleipena. Abuztuaren azken astean urtero, finkoen esleipena izan ondoren (ekainean), plaza bakanteak esleitzeko egun

bat konbokatzen dute. Eibarren esleitzen diren plaza motak holakoak izan daitezke:

- Jornada murriztu eta osoko jardunetako bakanteak: irailaren 1etik abuztuaren 31 arte.

- IRALE: irailaren 1etik ekainaren 30 arte.
- Errelebo kontratuko plazak: 5 urterainoko iraupena izanik.
- Liberazio sindikalak: liberazioak dirauen bitartean.

IRALE eta GARATU. Aurten GARATU ikastaroetan parte hartzeko epea irailaren 15ean bukatuko da. Aurten, Hezkuntza Sailarentzat hezitzaile moduan gutxienez egun batez lan egin baduzu eskaria egiteko eskubidea izango duzu. o. IRALE eskatzeko epea urrian zabaltzen da eta eskaria egin ahal izateko ikasturte osoko plaza izan behar duzu.

Banakako diru laguntzak. Eskaera epea urriaren 6an bukatzen da eta 2008ko urriaren 1etik 2009ko abuztuaren 30 arte egindako ikastaroengatik diru laguntzak jasotzeko eskatu daitezke. Laguntza jasotzen duten ikastaro motak hauexek dira: diplomaturak, lizentziaturak, doktoretzak, ikastaroak, kongresuak, masterrak, atzerriko hizkuntzetako ikastaroak...). Aurten emango den diru laguntza 558.000 eurokoa izango da.

Trienioak. Zerbitzuetako lehendabiziko hiru urte metatu bezain pronto, idatziz ordaindu diezazutela eskatu behar duzu lurralde ordezkarietan. Hezkuntza Sailak konpromisoa hartu zuen hurrengoak (bigarrenetik aurrera) automatikoki ordaintzeko (hau da, eskatu barik), baina halere erne ibili behar duzu. (Gogoratu: urte 1 = 360 egun)

Norberaren eginbeharretarako

baimena. Urte betez etengabe lan egin ondoren eta urte osorako lanpostua edukirik eska daiteke. Egundorietan ere, zerbitzu egun bezala zenbatzen dira (puntuak pilatzeko, antzinasunerako, etab.). Baimen hau ordezkari baldin badago soilik bermatuko du Administrazioak.

Amatasuna. Lizentzia hau 18 astekoa da; hauetatik 16 aste Gizarte Segurantzak ordaintzen ditu, gainontzeko bi asteak Eusko Jaurlaritzak ordaintzen dituelarik.

Zalantza batzuk argitu dizkizugulakoan gaude. Bestalde, argibide edo informazio gehiago behar izanez gero, deitu edo etorri sindikatura

Egutegi-ordutegiak egiterakoan kontuan hartu beharreko puntu batzuk:

- Egutegi-ordutegiak egiteko ardura enpresarena da, gure kasuan Berritzeguneko talde "multi"-arena.
- Koordinazio orduak hilabetean 10 ordu dira, 2,30 astean; ihardun murriztuetan, proportzionala da.
- Bazkaltzeko denbora 45 minutukoa da, eta denbora horretan eskolako eraikuntzatik atera zaitezke, ez zaudelako lan orduetan. 45 minutu hauek ordu bat bezala konputatzen dute, eta horretarako 15 minutuak eguneroko ordutegian gehitzen dira (iharduna 9etatik 16:30etara bada, 9etatik 16:45etara bezala agertuko da ikasturteko ordutegian).
- Ikasleei medikamentuak ematea borondatezko ekintza bat da, ikastetxeko beste pertsonentzako bezala.
- Irakastorduetan zehar, behar berezidun ikasleak, ikastetxeko beste ikasleriaren moduan irakasleak arreta eman diezaion eskubidea du, beraz, inongo kasuetan ez da egon behar ikasgelatik kanpo aurretik ikaslearekin finkatutako saioetan.

Lan hitzarmenak dioenez, ordutegian edota egutegian egiten diren aldaketak salbuespeneko izaera izan behar dute eta behar bezala informatua eta justifikatua egon behar da. Hala ere, aldaketak bere oinarrian behar berezi berrien sorrerak ekarri behar dituzte. Ordutegi-aldaketak dauden bakoitzean egutegi-ordutegi berri bat egin behar da, ados egon ahal gara edo ez, eta kasuaren arabera sinatu ala ez.

Garrantzitsua da jakitea egutegi-ordutegia sinatzeak konforme gaudela adierazten duela, ez jaso dugula soilik (batzuetan sinistarazi nahi digutenez). Ez sinatzeak gure desadostasunaren adierazlea da. Beraz, ez dago egutegi-ordutegia sinatzeko obligaziorik baina bai bertan jasotzen dena betetzeko beharra.


Hitzarmenean, onartuta ez dauden ordutegiak Mahai Parekidean berraztertzei aukera jasotzen da, beraz arazoak izanez gero garrantzitsua da STEE-EILAS-ekin kontaktuan jartzea dagokion Delegazioan erreklamatu ahal izateko eta Lakuan landu baino lehen egoera ezagutzeko.

Informazio guztia eskuratzen lehena izan nahi baduzu eta afiliaturik EZ bazaude, gurekin afiliatzera animatzen zaitugu. Horretarako nahikoa da egoitzaren batekin kontaktuan jartzea. Bertan zein pausu jarraitu behar dituzun esplikatuko dizugu.




ARABA: Eulogio Serdan 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20006 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org

ODOLKIDETASUNAREN ORGANIGRAMA



ZER EGIN LARRIALDI BATEN AURREAN



MUTUAK:

Araba: La Previsora.
Beato Tomás de Zumarraga kalea, 10 Gasteiz. Tlfnoa.: **945140900**

Bizkaia: Mutualia.
Bukegoak eta prebentzio zerbitzua: Henao kalea, 26. Tlfnoa.: **944252500**
Arreta eta mediku zentroa 24ordu: Ercilla kalea, 10. Tlfnoa.: **944252500**

Gipuzkoa: Pakea.
Camino kalea, 1 Donostia. Tlfnoa.: **943426500**